


AURKIBIDEA**Orrialdeak**

	1	Aurkibidea eta mapa
1.	2-7	Abendaño ikastola – 5. eta 6.maila
2.	8-13	Angel Ganivet ikastetxea - 5. eta 6. maila
3.	14-15	Arantzabela ikastola – 5. maila
4.	16-19	Barrutia ikastola - 5. eta 6. maila
5.	20-23	Luis Elejalde ikastetxea - 5. eta 6. maila
6.	24-29	Umandi ikastola - 5. eta 6. maila
7.	30-35	Armentia Ikastola - 5. eta 6. maila
8.	36-41	Toki Eder ikastola - 5. eta 6. maila
9.	42-43	Ramon Bajo ikastetxea - 5. eta 6. maila
10.	44-47	Adurtza ikastola - 5. eta 6. maila
11.	48-55	Lakuabizkarra ikastetxea - 5. eta 6. maila
12.	56	Gasteizko bertso-eskola





Abendaño ikastola – Gasteiz

5.A

DORAEMON
DOINUA: ORIOKO BALEA

- | | | |
|--|--|---|
| <p>1.
Japonian bizi dira
alai eta pozez
Nobita beti_etzanda
Doraemon gosez
Nobita ikastolara
beti doa nekez
ta Nobita etxera
berriro negarrez</p> <p>2.
Behin Nobita negarrez
etxera korrika
zero bat atera du
hori kalapita
amari kontatzean
hasi garrasika
amari esateko
beldur zen Nobita</p> | <p>3.
Doraemoni laguntza
berriz eskatzeko
doraiki batzuk eman
bera alaitzeko
eta azterketetan
dena gaintzeko
nahi du tramankulu bat
frogak egiteko</p> <p>4.
Doraemon arduraz
Nobitak ikara
eta laguntza eman
esan dio hara
dena dakin ogia
eman dio bada
guztiaren jakitun
bilakatzen zara</p> <p>5.
Matematika janda
hartu dio aurre
Erraldoik ogia jan
dauka irribarre
Nobita triste dago
Gainera_ipurterre
zero atera eta
Nobita haserre</p> | <p>6.
Erraldoi tripontziak
ogia dit kendu
eta orduan berak
100 atera digu
ta konturatu gabe
Erraldoi lagundu
Nobitak azkenean
zero atera du</p> <p>7.
Erraldoiek maite du
neskato Aiala
beti zero azterketan
ez zaio axola
ta Erraldioen amak
pentsatzen du hala
semeak azterketa
kopiatu duela</p> |
|--|--|---|



Abendaño ikastola – Gasteiz

5.B

Doinua: FURRA FURRA

*Futbol gola, gola futbol,
futbol gola, gola futbol,
ondo pasatzera!*

1.BEROKETA

Minik ez hartzeko bai!
hankak luzatuta
sartu dira zelaian
ondo berotuta

2.JOKALARIEN ZELAIRATZEA

Orain sartzen direnak
maite dute etxea
Rokaldiñoren ama
da irabazlea

3.GOL SAIAKERA ETA POSTE

Hiru jokalariek
salto egin dute
gola sartzen saiatu
eta eman poste

4.DESKANTSUA

Deskantsua iritsi
guztiak begira
eta denok joan ziren
berriro zelaira

5.TXARTELA GORRIA

Marisol Gonzalori
kolpatu gerria
kolpea eta gero
txartela gorria

6.PENALTI ETA GOLA

Falta txarra egon da
penalti futbola
Adurik kapitainak
bota du ta gola

7.OSPAKIZUNA

Oso pozik jarrita
jokalari hoiek
ospatu dute gola
jokalari onek



Abendaño ikastola – Gasteiz 5.D

HARRY POTTER
DOINUA: ORIOKO BALEA

1

Magia eskolatxo
da umez beterik
Harry Potter ospetsu
ez jakin zergatik
magia ta trukoak
jakiteagatik
eta nork irakatsi
amak txikitatik

2

Magia eskola batean
Ikastea_helburu
Erbito izeneko bat
Harry du apuru
tontolapiko honek
hil nahi seguru
Harry badu etsai bat
ta honek hil nahi du

3

Hilerri baten elkar
topo ta borrokan
hasi ziren ta biak
umore txarrean
Harry hilda ikusi nahi
bazuen gogoan
eskolan jarraitzen du
borrokak artean

4

Biak komunan daude
asko borrokatzen
maisua etorri zen
ta ikusi zituen
elkar banatu zitun
Klasera eramaten
ta zigortuta daude
klasean kopiatzen

5

Irakasle gaizto bat
klasera joan zen
Erbitori zigorra
honek dio kentzen
ta Harryri zigorra
ez dio altxatzen
zigorra kendu dio
Harry da haserraten.

6

Erbitorik eta Harryk
topo egin zuten
baina bata bestea
ez du ez maitatzen
Erbito eta Harry
komunan elkartzen
hurrengo egunean
borroka hasi zen

7

Magia_eskola bateko
komunan Potterrek
kamera sekretu bat
topatu du horrek
ikusi dragoi batzuk
salba nahi zaituztet
ta zer egin dezake
dragoi handi batek?

8

Kamera bat agertu
barruan munstroak
hauek gosea zuten
zabalduz ahoak
ta beldurrez dardarka
bota mokordoa
Erbito jan zuten ta
agur arazoak



Abendaño ikastola – Gasteiz 6.A

DOINUA:
ELURRA TEILATUAN

1.IKATZA

Olentzero joan zaigu
Ikatza hartzera
Zakua eramaten
Erori lurrera

Riau, rakataplau
Gaiztoen etxera
Orain bera zihoan
Ikatza uztera

2.ERREGE MAGOAK
Errege magoak ai!
Basamortun lotan
Baina_esnatzerakoan
Gameluak faltan

Riau, rakataplau
Zer ahal dugu hartu?
Laguna Santa Clausi
Oreinak eskatu

3.JANARIA

Amonaren etxera
Denok bazkaltzera
Erregeen egunean
Roskoa jaterra

Riau, rakataplau
Hauxe janaria
Oso goxoa dago
Gureztat turroia

4.ELURRA

Kaixo lagun onenak
Jango dugu jogurt
Gaur goizean egin du
Jolasteko elur

Riau, rakataplau
Elur bola da ur
Irristatu ta_erori
Apurtu dut hezur

5.OPORRAK

Gau osoa pentsatzen
Beti_oparietan
Irribarre polita
Gabon guztietan

Riau, rakataplau
Oso goiz jaikia
Opariak jasotzen
Ilusio_handia

6.GABONAK

Zapia ta txapela
Jantzi gogoekin
Lagunekin gaude ta
Familiarekin

Riau, rakataplau
ta familiarekin
Zuhaitzaren ondoan
Jostailu ta panpin



Abendaño ikastola – Gasteiz 6.B

ZAMORAREN ABENTURAK

BELDURRA
Kaixo gure melontzio
Txisatuko zara
Guk pistola hartuta
Zelako ikara
Txerri_itsusi hauekin
Beldurra_ez da falta
Ez bazara_esnatuko
Gu joango gara

LAGUNTZA
Mesedez ni lagundu
Behar dut nik eta
Laguntza eskatzen dut
Berriketa ez bota
Lasai egon laguna
Jo nire turuta
Jarraitu bide hori
Gutaz fidatuta

GENIUS
Kaixo ni Genius naiz
Bizi han kanpusen
Gurariak betetzen
Ni naiz arduratzen
Zuk dena_ondo pentsatu
Ta nik aldrebesten
Eta Geniusi jotzen
Zamora joan zen

POZA
Edurne Zuri dugu
Neskato handia
Hortxe dago itxoiten
Pozik du irria
Oso pozik dago hor
Ikusten zaldia
Orain afarian bai
Jan dut janaria

FESTA
Zamora kaletik da
Badoa festara
Orduak ta orduak
Dantza egitera
Neskatxa batzuekin
Atera dantzara
Festa ia bukatu da!
Ta orain etxera!

NAZKA
Ai ze nazka sagarra
Ni nago hemen lotan
Ni ezin naiz esnatu
sagarra behar jan
Konturatu naiz justu
Nago_amets batean
Sagarra jan dut eta
Esnatu hamakan



Abendaño ikastola – Gasteiz 6.D

ASMAKIZUNAK DOINUA: OLENTZERO

Unibertsoan daude
Agian erori
Hori bai da polita
Egon behar adi
Pinuaren gainean
Ematen du argi
Ea asmatzen duzun
Zer den gauza hori


Estutxeetan daude
Denok dituzue
Idazteko balio
Jakín ezazue
Kolare_askotakoak
Dendan dauzkazue
Ume guztiak dute
Asmatu_al duzue?

Gure laguna ondo
Bizi da mendian
Ikatzeta aurpegian
Dauka etortzean
Ume guztiak pozik
Bera ikustean
Opariak ekartzen
Dizkigu gauean

Dirdira asko eman
Bai espazioan
Egunean zehar bai
Ta gure munduan
Izar handia dago
Oporretan udan
Ea asmatzen duzun
Zorte ona izan

Denok polborioa jan
Ona dela esan
Elurra ari zela
Denok jolasean
Ondo pasatzen dugu
Guztien artean
Txanpaina edan eta
Txokolatea jan

Jateko balio du
Lan egun edo jai
Urre kolorekoa
Edo marroia ai!
Batzuetan ona da
Postrerako dut nahi
Barrutik horia da
Kanpotik ere bai



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz 5.D 1

*Ez zikindu!
honaino gaude gu,
ume hauekin lana badau-
kagu.*

Eskola dugu eta
oso zikin dago,
gutxi kobratzen dugu
ta soldata igo.

Konpresa ta tanpoia
odolentzat ongi,
ez bota hilekoen
zakarrontzi hori.

Garbitzaileak gara,
txintxo egon zaitez,
mahaietan txikleak
ez jarri mesedez.

Ez zikindu hainbeste,
ja daukagu nahiko,
lokatza eta ura
ez da jolasteko.

Ez hasi sprayekin
edozer margotzen,
ez egin grafitirik
paretak zikintzen.

Nekatuta gaude ta
gora behera egin,
eskola eskailera
mekanikoekin.

Garbitzaileak gara,
dugu pilo bat lan,
garbitzaile gehiago
nahi dugu eskolan

Asko behar ditugu
material berriak,
erratz bereziak ta
fregona handiak.

Mutilak komunean
birritan pentsatu,
txisa egiterakoan
ondo apuntatu.

Beti daude lurretik
liburu handiak,
beti erortzen dira
liburu guztiak.

Uniforme zaharrak
ditugu handiak,
uniforme berriak
urdin ta gorriak.

Lanean ari gara
goiz eta gauean,
robot laguntzailea
nahi dugu lanean.



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz

5.D.2

Etxe gabe egongo
da irakaslea,
guretzako soldata
gehio izatea.

Gure eskolan dago
beti bai jokoa,
gure eskolan nahi dugu
orduko patioa.

Goizeko zortzietan
hasi naiz lanean,
kafe makina hobe bat
irakasle gelan.

Eskolan ez dugu nahi
arbela normala,
eskola guztietan
arbel digitala.

Neska-mutilek inoiz ez
digute barkatzen,
inork ez du ez gure
lana baloratzen.

Hobea da umeak
jartzea banaka,
zergatik daude beti
umeak kexaka.

Eskolako umeak
beti gazte hizkuntza,
ikasleak euskaraz
inoiz ez dabilta.

Hobea da klaserik
ez arratsaldean,
arratsaldean hobea
egotea parkean.

Umeak hitz egiten
ez daude lanean,
umeak beti joka
daude hor klasean.

Ikasleek saria
pentsatzen dute hobe,
umeak etxerako
lanak egin gabe.

Nahiago dut gustura
hartzea kafea,
hobe da latigoa
gertu izatea.

Zergatik asteburua
bi egunekoa?
Asteburua hobeto
hiru astekoa.

Eskolan beti behar
da laguntzailea,
oso dibertigarri
da irakaslea.

Umetxo gutxiago
gela bakoitzeko,
umeak botatzea
leihotik hobeto.



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz 5.D.3

*Gurasoak
gara oso majoak,
deabruak dira gure ume-
txoak!*

Janaria erosteko
ez zaigu ailegutzen,
prezioak goraz doaz
pobreak bihurtzen.

Egunero ohera
goiz joan umeak,
hauxe egin behar da
edo da grabea.

Umeak beti daude
"Call of Duty" gertu,
Play Station edo Wii,
kotsolak baztertu.

Umeak beti dabilta
erdaraz klasean,
euskaraz egitea
beraien artean.

Beti eskatzen diote
aita edo amari,
umeek hartzen dute
goxoki gehiegi.

Notetan beti dute
gutxi edo nahiko.
Lan gutxi egiten dute,
telebista asko.

Beti nahiago dute
hauek jolastea,
ez da erraza hurrek
gela jasotzea.

Burua ezin dute
izan gogorrago,
tableta utzi eta
liburu gehiago.

Umeek eskolan inoiz
ez dute ikasten,
umeek ez dute oso
nota ona ekartzen.

Umeek beti nahi dute
lau gaztako pizza,
barazkiekin beti
kexaka dabilta.

Nire lanorduetan
naiz oso argia,
lanordu asko eta
soldata txikia.

Beti beti hitz egiten
baina inoiz entzuten,
goiz edo arratsalde
haurrak beti eskatzen.

Europa, Ozeania,
Amerika, Asia...
mundu osoan dago
handia krisia.

Hemen gaude etxean
lan eta lanekin,
ez ditugu oporrak
ezta ametsekin.



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz

6.D 1

Ta medikuak erantzun zion
 atzamarra moztu zuela
 eta min handia izango du,
 bendatu behar dutela.
 Ta medikuak erantzun zion
 Bendatu behar dutela

Baratxuri eta oliorekin
 egingo dut barbakoa.
 Basoan ta erreta jateko
 otsoa oso goxoa.
 Baratxuri eta olioarekin
 otsoa oso goxoa.

Iñaki eta umeak klasera
 sartu ta pozik halere,
 Ez daude oso-oso grabe ez,
 umeak dantzatzen daude.
 Iñaki eta umeak klasera,
 umeak dantzatzen daude.



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz
6.D2

Txerrimanek utzi du mutila,
mutila burusoil dago,
mutilak ispiluan ikusi
eta ile gutxiago.

Luigi bizirik, zalditxoa hil,
Mario eta Luigi pozik.
Partida jarraitu, pausarik ez,
Luigi ta Mario bakarrik.
Zaldiari esker irabazi,
Luigi ta Mario izan ezik.

Txakurra harrituta geratu,
katua itxura urduriz,
elkar begietara begira
biak maitemindu guztiz.
Txakurra harrituta geratu,
biak maitemindu guztiz.

Alienari gosea sartzen
eta aliena ezin aguantatzen,
ezta mugitzea pentsatzen
azkenean Dori jaten.
Alienari gosea sartzen,
azkenean Dori jaten.

Geroago guztiak ikusi
neskak barrezka horrela,
zuek ez zarete konturatzen
hau zuzendaritza dela.
Geroago guztiak ikusi
hau zuzendaritza dela.

Berandu ailegatu naiz eta
liburuak hartu ditut
eta eseri oso isilik,
bronka handia jasoko dut.
Berandu ailegatu naiz eta
bronka handia jasoko dut.



Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz
6.D3

Hau da gaiztoak izateagatik,
ze pena negar egiten!
Hauek dira astakilo hutsak,
ai ze min egin diguten!
Hau da gaiztoak izateagatik,
ai ze min egin diguten.

Itsasoan badago
arrain oso abila,
oraintxe joango naiz
famiaren bila.

Neskato baten aitak
pozoia ematea.
Hartu beneno pixkat
laztana maitea.

Arrama batekin jausi zaigu
ta zuhaitz hori igotzen.
Susto handia hartu du eta
lokatzetan erori zen.
Arrama batekin jausi zaigu,
lokatzetan erori zen.

Eta oso ondo pasa dute,
bihurtu dira kuttunak.
Elefantea oso polita
eta guztiak lagunak.
Eta oso ondo pasa dute
eta guztiak lagunak.



Arantzabela ikastola – Gasteiz 5.A

OPORRETAN
LOROLOROLOROLORO
Doinua: Ranroberra

Australia

Ikastola bukatu
ta aguantatu ezin
gero bidai batekin
gure kanguruekin
hondartza ta oihana
baduzue atsegin
aspertzen bazarete
etorri gurekin

Caribe

Hiritik Caribera
joango al gara?
ta horren ondo gaude
goazen hondartzara
erlaxatzera goaz
animatzen zara?
hoberena Caribe
zoaz pikutara!

Hoolywood

Ikastolako oporrak
ta Hoolywoodera
oskarra jaso eta
guztiok zinera
hementxe geratzeko
daukagu aukera
ez gara joango inoiz
berriro klasera.

Hawai

Hawaiera joan gara
laurak kruzeroan
ez dago horrelako
besterik munduan
marrazoak ikusten
ditugu hondartzan
hemen geratzen gara
Adnanekin dantzan

Venezia

Veneziara goaz
maleta beteta
jango ditugu pizza
pasta edo kroketa
ta bigarren platera
pixka bat txuleta
hemen geratzen gara
gustura gaude eta



Arantzabela ikastola – Gasteiz 5.B

OPORRETAN
LOROLOROLORORO
Doinua: Ranroberra

Oso irla polita
da Hawaii benetan
nik eramango nuke
irla hau maletan
Hawaiien ibiliko
gara ametsetan
Hemen egongo gara
opor guztietan

Miamira gu goaz
hortxe bainatzera
Yatean ondo gaude
denok hondartzara
jaia egingo dugu
ta gero etxera
ez gara itzuliko
berriro lanera

Oporretara goaz
bagoaz ta kitto
hemen da matxupitxu
dago aspaldiko
oso polita dago
ta hau da Mexiko
hemen ondo gaude ba
ez gara itzuliko

Nueva Yorkera goaz
hiri handi batera
izango da la pera
edo la repera
eta bihar goizean
"go" Central Parkera
ez gara itzuliko
berriro klasera

Italiara goazen
gu opor hauetan
burua sartuko nuke
nik pizza batetan
teknologia ferian
eta hondartzetan
hemen egongo gara
bi hilabetetan

Oporretara joango
gara oso guapo
oporretan ez dira
toallak faltako
eta egingo dugu
itsasora salto
Sidneyen geldituko
gara betirako



Barrutia ikastola – Gasteiz 5.A

PINOTXO

Pinotxo egin zuen
bai gizona horrek
Gepeto ta Pinotxo
jolasten beraiek
gaua iritsi zenean
bai afaltzen denek
bizia eman zion
amabitxi batek

Pinotxo egun batean
joan zen lagunekin
ta topo egin zuen
azeriarekin
ez zion kilkerrari
Ez kasurik egin
eskolara bidean
joan zen berarekin

Zirkora eramaten
kaiolan sartzeko
geratu zen bakarrik
hor zegoelako
oso triste zegoen
Jolas egiteko
kilkerra agertu zen
bera salbatzeko

Kilkerra harriturik
jolasten zegoen
bilarrera jolastuz
ondo pasa zuen
edari arraro bat
gero eman zioten
ta bera bat-batean
asto bihurtu zen.

Bale batek pinotxo
orduan jan zuen
Gepetoren bila ta
Pinotxo joan zen
balearen barruan
han elkartu ziren
Pinotxo ta Gepetok
ihes egin zuten

Orain esan egia
itxura berria
ez dela itsusia
beitu nire argia
nire amabitxiak
eman dit bizia
lehen egurrezkoa
orain gizakia



Barrutia ikastola – Gasteiz 5.B

NEMOREN IPUINA

Marley aita zen eta
zegoen geldirik
Marley eta emaztea
umeen atzetik
marrazoa ikusi
zuten urrunetik
marrazoa jan zituen
Nemo izan ezik

Nemo ikastolara
eta ondo zegoen
Nemok egin zituen
hainbeste lagun on
lagunekin joan zen
guztiak itxaron
botera joateko
batek esan zion.

Botera hurbildu zen
Nemo igerian
azkar asko joan zen
bera bat-batean
gero polikiago
beldurra barnean
Nemo harrapatuta
ta utzi sarean

Nemo dentistan egon
pezera batean
egunak ta egunak
pasa zituen han
dentistako pezeran
bertan jolastean
lagunak bazituen
pezera horretan

Hurrengo egunean
Marley joan zen
pelikano batekin
Nemo eramaten
Nemo arrain ontzi
batean zegoen
orduan itsasora
buelatu ziren

Eta aitatxorekin
bizitzen zegoen
beste arrainekin
egon zen jolasten
Nemo lagunarekin
pozik egon ziren
eta Nemo orduan
eskolara joan zen



Barrutia ikastola – Gasteiz
6.A

Gaur da azken eguna
gaur dugu eskola
Bihar jada jai egun
ez galdu kontrola
Lakua institutura
guk esango, mola!
Ez dugu ahaztuko
agur ikastola!

2004an
nintzela txikia
bertara heldu nintzen
gaur egun handia
gure azken eguna
tristuraz begia
Institutura goaz
agur Barrutia

Azken urtea da ta
gaude oso larri
agur irakasleak
ta ikastolari
ez zaigunez gustatzen
joatea guri
esaten diogu guk
agur Barrutiari

Gaur gure azken eguna
eta pozik gaude
Ondo pasatu behar
duzue gu gabe
baina gu ere gaude
pixkatxo bat triste
agur gure lagunak
ta beste bat arte!

Agur lagunak Ana
Yanire ta Urko
espero ikustea
berriro ta punto
gaur ondo pasa dugu
eta jolastuko
momentu eder hauek
ez ditugu ahaztuko

Gure eskola bukatu
ta gu jolastera
hondartzara joango naiz
gero dutxatzera
LH bukatu
ta DBH ra
gure opor politikak
bukatu egin dira



Barrutia ikastola – Gasteiz

6.B

Lagun asko ditugu
 beti oso trebe
 beti alboan gaude
 gaixorik badaude
 beraiekin jolasten
 lehen baino hobe
 lagun onak egiten
 betidanik gaude

Gu oso ondo geunden
 joaten etxera
 lagunekin batera
 joaten kalera
 orain institutura
 gu DBHra
 A zelako pereza
 berriro klasera!

Urtea pasa dugu
 egiten kontrola
 beti lanak egiten
 ere bai kirola
 batzuk geratzen dira
 guri bost axola!
 Laster bukatuko da
 gure ikastola.

Duela hainbat urte
 hasi ginen hemen
 lagunekin jolasten
 ta barre egiten
 gure ikastola da
 gu hemen ikasten
 momentu onak eta
 ez onak pasatzen.



Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz
5.A

HIRU TXERRITXOAK

Amak esaten die
joateko tente
baina basoan bada
horrenbeste jende
txerritxoak beldurtu
eta egin alde
otsoarekin kontuz
ibili zaitezte

Txikienak egin du
etxe lastozkoa
eta ertainak berriz
du egurrezkoa
eta hirugarrenak
bai adreiluzkoa
honela daude eginak
hiru etxetxoak

Lehen etxeak dauka
ugari lastoa
putz egiteko berak
ireki du ahoa
beraiek jan asmotan
da oso goxoa
ta gero ertainaren
etxeraino doa

Bi txerritxoak daude
begira kalera
otsoa dator eta
putza egitera
egurrezko etxea
botatzen du behera
bi txerritxoak doaz
adreiluzko etxeraino

otsoa putz egiten
ze pobre txerria
baina ezin du bota
ze pena handia
ondoren teilatuan
jarri du begia
tximiniatik behera
erre du ipurdia



Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz
5.B

TXOKOLATEZKO ETXEA

Familia txiro baten
beti bizi ziren
beldurtu egiten ziren
dirudik ez zuten
janaria bilatzen
negarrez ari zen
behin batean basora
eraman zituzten

Bidetik bota zuten
ogi zatitxoak
txoriak jan zituzten
zatitxo guztiak
negarrez hasi ziren
gero umetxoak
bidea ezin topatu
galdu ziren biak

Basoan aurkitu zuten
etxe bat jateko
umeak ezkutatu
bera ez ikusteko
baina sorgin gaiztoak
tranpa egiteko
sorginak esan zuen
etxera sartzeko

Hansel eta Gretelek
biak jan eta jan
sorgina pirulina
loditzeko asmotan
lehendabizi Hamseli
sorginak jan nahian
Gretel garbitzen zuen
ta Hansel kaiolan

Gretel bere anaia
doa salbatzera
Hansel ateratzen da
poz pozik kalera
ta biak bota zuten
sorgina labera
ta salbatu ondoren
joan ziren etxera

Bai Hansel ta bai Gretel
basoa alboratu
etxerako bidean
sorpresa aurkitu
sorginaren etxean
urrea topatu
eta biak batera
ziren etxeratu



Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz
6.A

OPORRAK

Hasiko gara handik
lehenengo Ceutatik
lo egingo dugu ta
jarraitu Hondurastik
Azkenik joango gara
gu hegoaldetik
mundu osoan pozik
tour bat Europatik

Pozik joango gara
hondartza batera
ta gero itsasora
ondo pasatzera
eta gosearekin
arroza jatera
udan joango gara
Vilanculosea

Klasean egon gara
gu lotan benetan
gure amets guztiak
Afrika aldean
udaran joateko
gogoan gainean
Egiptora joango
gara oporretan

Hegazkinean gaude
zerura begira
dena ikusten dugu
euria ari da
bihar egongo gara
hondartzetan tira
aurten joango gara
denok Miamira



Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz
6.B

OPORRAK

Udan joan nahi nuke
barrakotik behera
gero Willyrex
tanga ipintzera
ondoren Rubiusekin
bideak egitera
gauean bukatzeko
Veggetta hiltzera

Australian kanguruak
hona eta hara
bertara joateko
daukagu udara
hondartzan surfeatzen
zelako pasada
aurten Australiara
iritsiko gara

Martera joango gara
hegazkin batean
Mamadou ikusiko dugu
herriko kalean
gurekin joango da
hegazkin berean
oso pozik zegoen
bai gu ikustean

Guk zer egin pentsatzen
udako oporretan
gustuko litzaiguke
pasatzea hondartzan
itsasoan bainatzen
gu paradisian
azkenik erabaki
Maldivara joan



Umandi ikastola – Gasteiz

5.A

ZAZPI ANTNUMEAK

Zazpi antnumeak bai
bizi ziren ongi
baina ama erosketara
joan behar zen argi.
Amatxok esan zien
bere umeei
-ez ireki atea
mesedez inori !

Otsoa sartu zen
korrika atetik
ta sartu zenean
antnumek bakarrik
Txikia erloju atzean
han ezkutaturik,
antnume guztiak janda
txikia izan ezik


Otsoak atea jo
ta oso poliki
hanka erakusteko
eskatu ederki
Antnumeek ikusi
beltz eta ez txiki,
hanka beltza zuenez
ez zioten ireki.

Ama etxera iritsi,
zituen poltsa pila
aurkitu zuen txikia
erlojuan isila.
Antnumeak kontatu
zion iskanbila
ama eta txikia
otsoaren bila

Otsoa aurkitu zuen
bidean lo hartuta
aizurrak hartu eta
tripa puskatuta.
Antnumeak atera
ziren denak aupa
eta sabel barruan
harriak sartuta.

Oraingoan hanka zeukan
Irineztaturik
berriro pasatu zen
txikien etxetik
Otsoak atea jo
baina zen alferrik
ez zioten ireki
ahotsarengatik.

Esnatu zen egarriz
ia ia lotan
ta ibaia bilatzen
nekatua benetan
Ibaia aurkitzean
zorte txarra zeukan
edatera joan eta
ito zen errekan.



Umandi ikastola – Gasteiz 5.B

*Ai zapotxon!
Nirekin ez egon,
joan zure etxera ta ikusi
Pokemon.*

Klasea hasi eta
daude ilargian,
ikastolan, klasean...
beti daude hizketan.

Nire klaseko denak
dira oso tontoak.
Ez dira ordenatuak
nire klasekoak.

Ikasle guzti hauek
asko dute ospe,
klasera ia beti
erdi lo datozte.

Telebistan ikusi
ta zeuden ederto,
Minionak nahi ditugu
guri laguntzeko.

Beti jolasten dute
Gasteizko parkean
eta ilargian daude
mateko klasean.

Eskola bitartean
ez daude lanean,
arauak ez dituzte
betetzen klasean.

Ez dute kasu egiten
puzkerrak botatzen
eta klase guztia
beti dago usaintzen.

Azterketetarako
ez dute ikasten,
etxerako lanak ez
dituzte egiten.

Koaderno urdinean
boli erabiltzeko,
estutxe polit hori
ez da jolasteko.

Arkatza, borragoma,
bolia, tenpera....
ez dute materiala
ekartzen klasera.

Hitz egiterakoan
jarri behar mute,
beti gaztelaniaz
hitz egiten dute.

Txirrina jotzen du ta
etxera alferrik,
umeak doazenean
lana dugu oraindik.

Ikasle kaxkar hauek
hartuko dute min,
pasillotik ezin da
korrikarik egin.



Umandi ikastola – Gasteiz 5.C

*Neska mutil
egon pixkat trankil!
Batzutari nahi dut nire
umea hil.*

Umeek esaten dute
porea da kaka,
umeak beti daude
eskolan kexaka.

Beti daude jolasten
eta gutxitan lan,
nota txarrak dituzte
ikastetxeetan.

Umeak beti daude
hain gaizki portatzen...
umeak borrokatzen
eta mina hartzen.

Umeak beti daude
goxokiak hartzen,
umeak goxokiak
eskatzen ta eskatzen.

Lanera joan baino lehen
erosi ogia,
ordu asko lanean ta
soldata txikia.

Etxetik irteteko
ireki atea,
umeak garaiz ere
eskolaratzea.

Gaur egungo gizonak
ez dute esango,
seme-alaben gelatan
zabor asko dago.

Seme-alaben artean
beti joka daude,
ez dute errespetatzen
beti txarra umore.

Apurtzen dituzue
arkatz ta jolasak,
ez apurtu guztia,
zaindu ondo gauzak.

Zergatik lanekoek
ez daukate aukera?
umeak lehenago
joateko ohera.

Nire familiak nahi du
egotea seguru,
oporraldi luzeak
euki nahi ditugu.

Nire senarrak nahi du
etxe bat hobea,
loteria mesedez
guri egokitzea.

Nire umeak txarto
ta ez daude gizen,
janaria ipini
ta ez dute jaten.

Ez duzue erratza
ezta mahaia jartzen,
ez duzue etxeko
lanetan laguntzen.



Umandi ikastola – Gasteiz

6.A

Lorea lehergailu bat da ta
petalo guztiak hartu,
lorea ezin da kontrolatu
dragoi osoa lehertu.
Lorea lehergailu bat da ta
dragoi osoa lehertu.

Zergatik sartu zara eskolan?
ezin dizut ba utzi nik,
bakarrik ikasleek ahal dute,
joan zaitetz azkar hemendik!
Zergatik sartu zara eskolan?
joan zaitetz azkar hemendik!

Stacy eta estralurtarra
Lagun minak egin dira.
Baloiarekin jolasten daude
pozik jira eta bira.
Stacy eta estralurtarra
pozik jira eta bira.

Baloia erori zaio buruan,
ai zelako kolpea eman,
Cristiano kolpearen ondorioz
pentsatu du dela Antman.
Baloia erori zaio buruan,
pentsatu du dela Antman.

Azterketa eman diotenean,
Iñakik aukera galdu,
puntu erdia, zero koma bost,
nota txarra atera du.
Azterketa eman diotenean
nota txarra atera du.



Umandi ikastola – Gasteiz

6.B

Iñakik ikusi janaria
ta jarraian kendu dio.
Amak ikusi ta kexatu da,
kalera ze erremedio!
Iñakik ikusi janaria
kalera ze erremedio.

Bilbo guztia apurtuko da
eta Bizkaia akabatu,
Bizkaia dago erdi apurtuta
ta Arabak konkistatu.
Bilbo guztia apurtuko da
ta Arabak konkistatu.

Zirkuko magoak egin gara
guk izan nahi dugulako,
jendearekin jolastea ta
magia egitea gogoko.
Zirkuko magoak egin gara
magia egitea gogoko.

Bere etxera bueltatu dira
sustoa pasa ondoren,
hegazkinean jendearekin
pozik, alai ta kantatzen.
Bere etxera bueltatu dira
pozik, alai ta kantatzen.

Txoriek jango dute pastela,
amona etorri denian
ikusi egin du bere pastela
katuaren aurpegian.
Txoriek jango dute pastela
katuaren aurpegian.

Utzi bakean New York hiria
eta pikutara joan!
Ez etorri berriro hemendik,
ito zaitetz itsasoan.
Utzi bakean New York hiria,
ito zaitetz itsasoan!



Umandi ikastola – Gasteiz

6.C

Goizanek, Nuok eta Malenek
ireki dute leihoa,
haizea sartu eta ondoren,
sendatu dute Naroa.
Goizanek, Nuok eta Malenek
sendatu dute Naroa.

Hau beldurra marrazoarekin
joango naiz ihesean,
marrazoaren hortzak zorrotzak,
banoa taula gainean.
Hau beldurra marrazoarekin,
banoa taula gainean.

Korrika daude biak batera
Iñigo ta Patxirekin,
txakurra daukat nire atzean,
kataplof harri batekin.
Korrika daude biak batera...
kataplof harri batekin.

Zerbitzariak buelta eman ta
gure lagunak korrikan.
Sekulakoa da zaparrada,
oso gogorra kalean.
Zerbitzariak buelta eman ta
gure lagunak korrikan.

Messi Cristianorekin ezkondu,
bien bihotzak elkartu,
maitasuna soberan daukate
ta ume bat adoptatu.
Messi Cristianorekin ezkondu
ta ume bat adoptatu.

Chicago Bulls oso pozik daude
koparekin denak orain,
festa bikaina egin dutena
jolastu baitute bikain.
Chicago Bulls oso pozik daude
jolastu baitute bikain.



Armentia ikastola – Gasteiz

5.A

DOINUA: ORIOKO BALEA
EUSKARATIK TA EUSKARAZ

EUSKARA IKASTOLAN
Ikastolan erdarak
eman behar lotsa
ikastolan euskarak
ematen du poza
gu komunikatzeko
hizkuntza aproposa
euskaraz mintzatzeak
sortu behar goza

EUSKAL MUSIKA TRESNAK
Euskal herriko tresnek
musika aparta
tresna oso polita
danbolin galanta
Benito Lertxundi da
hori bai ausarta
eta gure txistua
gure txalaparta

ARABA EUSKARAZ
Irakurri euskaraz
egunaz ta gabaz
ez hitz egin erdaraz
ta euskaraz idatz
asko gozaten dugu
euskara egunaz
hitz egiten dugu ta
Araban euskaraz

HERRI KIROLAK
Kirola egiteko
ditugu gogoak
Atutxa, Olasagasti
kriston indartsuak
Irujo, Olaizola
pilotan jaiokak
eta bakarrik dira
Euskal Herrikoak

EUSKARAREN ZENTZUA
Euskararen zentzua
euskara hartzea
ta guk esaten dugu
Euskara da_arte
lehenengo gauza da
euskera_egitea
euskara gure_hizkuntza
euskara maitea

KORRIKA
Erdara entzuteak
ematen ikara
euskaldunen korrika
goazen ospatzera
Korrika ospatzeko
goazen Arabara
lekukoa eraman
goazen Korrikara

EUSKARA LAGUN ARTEAN
Gure artean euskara
erabili_ezinik
batzuetan saiatu
egin behar baizik
euskara bihotzean
daukagu bizirik
zalaparta ta gero
beti gaude pozik

EUSKARA HIZKUNTZA
Euskara hizkuntza da
eder eta alai
lagunekin hitz egin
beti nahi dugu jai
euskara mantentzeko
benetan gara gai
euskara hizkuntzarik
hoberena da bai

EUSKARA MAITEA
Euskaldunen hiria
da Euskal Herria
Euskal Herri maitea
beti da alaia
Euskaraz mintzatzea
Noizbehinka da zaia
Euskara bihotzean
Euskara maitia



Armentia ikastola – Gasteiz 5.B

7 ANTXUMEAK DOINUA: FURRA FURRA

Bazen behin zazpi ume
bizi ziren pozik
eta etxola baten
polita barrutik

Zazpi antxume zeuden
beti hitz eta pitz
Ta oso pozik zeuden
Amarekin biziz

Antxumeak bakarrik
etxean bazeuden
ama erosketara
etxetik joan zen

Ozen entzun umeak
ez utzi_inori sartzen
kontuz otsoarekin
amak esan zien

Otsoak ama nola
etxetik joan zen
hau da nire aukera
esan zuen ozen

ondoren otsoa bai
joan mendi behera
isilpean hurbildu
antxumeen etxera

kas kas kas atea jo
nork jo du atea
ez zara gure ama
duzu_ahots grabea

Tok tok tok atea jo ,
otsoa naizela
ziria sartu nahian
zu zara ergela

Ta orduan otsoak
oilategirako
bidea hartu zuen
han jartzeko bapo

Azkar azkar joan zen
arrautzak jateko
arrautzak jan zituen
ahotsa fintzeko

Otsoa bueltatu zen
arrautzak ahoan
ireki amatxo naiz
azkar bat-batean

Erakutsi mesedez
hanka ate_azpitik
gure amak ez ditu
oin beltz eta handik

Otsoa irinetan
gora eta behera
eta berriro doa
antxume(e)n etxera

Han denak jan zituen
Doaz urdailera
txiki ezkutura joan
erloju atzera

Txikia zen bakarrik
etxerako bueltan
ta negarrez hasi zen
esplikazioetan

Otsoa bilatzera
azkar joan ziren
ta lo zegoelarik
tripa_ireki zuten

Antxumeak atera
tripa harriz bete
josi zioten dena
zen harentzat kalte

Otsoak esnatzean
ibaira egin salto
bere pisuagatik
han bertan zen ito



Armentia ikastola – Gasteiz

5.D

EUSKARATIK
ETA EUSKARAZ

DOINUA:ORIOKO BALEA

Euskal kanta abestu
mugitu mihia
araban bizi gara
Gasteiz da hiria
euskaraz egitea
da gure saria
hau izango da beti
gure_Euskal Herria

Pilota bat hartuta
jo dugu pareta
pelotazo batekin
hortza dut koloka
jolastu eta gero
jan dugu patata
frontoian nago eta
gustuko pilota

Argitxok esan zigun
euskaraz laztantxo
ta guk esan genion
noski gure_Argitxo
berak eman zizkigun
hamaika_aholkutxo
eta bere_izena da
Argitxo_iratxo

Gure klasea dugu
Bosgarren D gelan
beti gaude jolasten
euskaraz klasean
lagun asko ditugu
denok egiten lan
orain dela urte asko
gaude ikastolan

Egin behar duguna
saiatu_egunero
berak jantzita ditu
hamabi kulero
oso potolo dago
eta ero ero
gehiegi jaten du ta
hau da Olentzero

Sokatira ta pala
esku pilota_ere
zesta-poteak eta
jolasten gu gaude
arrantzatzen ari da
baita ere Nere
herri kirola_egiten
dago Maritere

Euskal Herri ederra
lore ta hostoak
mendira joateko guk
ditugu gogoak
eta baserrietan
ditugu astoak
euskaldunak gara ta
Euskal Herrikoak

Etxe barruan gaude
bertso egitera
dortsalik ez dago ta
goazen bilatzera
jada aurkitu dugu
ba krak batzuk gara
ordu bat pasatu da
goazen Korrikara



Armentia ikastola – Gasteiz

6.A

1.

Ekologistak gara
Ta eskatzen dizut
Animalitxoei
Errespetua zuk
Janari eta zainketa
Maitasunaren truk
Animaliak asko
Maite ditugu guk

2.

Gaur egun mugikorra
Lehen paper ta arkatza
Elektrizitatea
Astoaren putza
Rumba utzi etxean
Ta hartu erratza
Itzali wasapa ta
Idatzi eskutitza

3.

5 minutuko dutxak
Badira perfektu
Ta uraren fakturak
Murrizten saiatu
Bertso txiki honekin
Egin nahi dut tratu
Mesedez eskatzen dut
Ura ez xahutu

4.

Zulutzen ari gara
Gure atmosfera
Klima ezberdin asko
Badira aukera
Euri asko lehorte
Badatoz gurera
Ta gizakien erruz
Klima aldatzen da

5.

Mesedez ez kutsatu
Bestela hilko dugu
Gu bertan bizi gara
Eta hainbat tribu
Hasi mugitzen jada
Ordua heldu zaigu
Gu gara lurra bera
Eta asko zaindu

6.

Lurrikaren uhinak
Oso arriskitsuak
Ta tsunamiak sortzen
Kriston olatuak
Tximistak ta trumoiak
ze zaratatsuak
Fenomeno hauek dira
Oso indartsuak



Armentia ikastola – Gasteiz 6.B

Mundua pixkat txarto
zaindu behar dugu
gure_etxea delako
defendatu_helburu
gure seme alaben
bizi aseguru
beno, ulertu duzu
ta mundua zaindu


Ez dugu birziklatzen
beti da azkena
edukiontzietara
da bide zuzena
urdina da papera
bestela ze pena
birziklatuko dugu
ahal dugun dena

Guk argi daukagu ta
lurra ez da garbi
mundua denona da
garbi eta argi
denok zainduko dugu
gure ekologi
nik badut argi zaindu
lur eta ilargi

Oraindik ez dakigu
zer den okerrera?
arnastu nahi dugu_aire
garbi ta sakona
geure mundua dela
zaindu behar dena
kontaminazioa
ez delako ona

Lurra kontaminatzen
beti ari gara
kotxea_etxean utzi
oinez joan kalera
beraz zakarra ez bota
ibaiko uretara
hori_egiten baduzu
Lurra _aldatuko da

Birziklapena bada
ibili arretaz
hondakinak ez bota
lurrera hain erraz
lagundu birziklatzen
guztion laguntzaz
munduaz txarto dago
birziklatu beraz



Armentia ikastola – Gasteiz

6.D

Zentral nuklearrena
 Ez dugu gustoko
 Natura suntsitu ta
 Bizitza amaituko
 Natura maite dugu
 Zuk ere maiteko
 Ekologistak gara
 Lurra babesteko

Zentral nuklearra da
 Kriston kaka putza
 Zuk ez kutsatu ura
 Bestela ez dau dutxa
 Birziklatu behar da
 Gure zabor kutxa
 Gu gara ekologistak
 Dantzatu txa-txa-txa

Hemen gatoz gu denak
 Ondo pasatzera
 Raperoak garenez
 Rap bat abestera
 Ekologia gora
 Zentralak kanpora
 Energia berdea
 Bai erabiltzera

Denok esan altuan
 Gara ekologistak
 Inauteriak dira
 Ta izugarriak
 Natura ez hiltzeko
 Gu gara onenak
 Guk ez ditugu maite
 Nuklear zentroak

Kaixo ,hasiko dugu
 raperoen gerra
 ekologistak gara
 ez dugu beldurra
 ta zigortuko dugu
 gizaki maltzurra
 rapero_ekologistak
 zaindu behar lurra

Gustatzen zaigu asko
 berezi den CD
 ekologistak dira
 dituzten balore
 gure lana haxe da
 entzun zu hor zaude
 ekologista zara
 nahi ez baduzu ere



Toki Eder – Gasteiz

5.A

Ai zapotxen!
bonboia nahi nuen
eta semeak bonboiak
jan zuen.

Ezin dira egon ta
beraien lagunak,
etxeke lanak beti
aitak eta amak.

Ez badiogu uzten
beren bakar soka,
beraiek, umetxoak,
beti protestaka.

Kasurik egin gabe
ta bronka botatzen.
Ez dute ezer jasotzen
ta beti jolasten.

Umeak beti eskatzen
gauzak garbitzeko,
denbora librerik ez
gauzak egiteko.

Mediamarkera joan
eta Call of Duty
jokoekin atera,
prezioak garesti.

Suplikatzen digute
uzteko G.T.A.n,
afaltzeko orduan
guk prestatu haiek jan.

Xbox one jolasten,
ez dute ikasten.
Umeek ez gaituzte
ondo baloratzen.

Ikastolara joaten
takoak esaten.
Ez dakite beraiek
ondo hitz egiten.

Etxera bueltatzean
oso gaizki eskuak,
lan asko egin eta
soldata baxuak.

Nota oso txarrak bai
gazte eta mate,
gaizki portatu eta
asko eskatzen dute.



Toki Eder – Gasteiz 5.B

Ai zapotxon!
Lanik ez dago inon,
etxean ezin gara geldi
egon.

Dirurik gabe eta
kalean bizitzen,
etxe desjabetzea
eta segi ordaintzen...

Ez dugu jateko ta
izatea hobe.
Ume asko goseak
ta janari gabe

Auzo honetan zeuden
pila okindegi.
Dendak ixten dituzte
diru gutxiegi.

Eraikuntza Gasteizen
diru gutxiago,
osasunarentzako
diru gutxi dago.

Kexa bat jartzen gaude
eta gu laukote,
agintariek dena
lapurtzen digute.

Guk dauzkagun txanponak
bi euro inguru.
Ura, gasa ta argia
ezin dugu ordaindu.

Umeak aguantatzen
gara irakasleak,
ordu pila lanean
gaude langileak.

Jende asko kexatzen
bere lantegiaz,
enpresak baliatzen
direla krisiaz.

Gabona etorri ta
laster opariak.
Zergatik ote daude
gauzak garestiak.

Krisia dela eta
kanpaldira ez goaz...
Diru gutxi daukagu
zergak gora doaz.



Toki Eder – Gasteiz 5. C

*Ai mundua!
ez da karratua,
baina bai dago
oso kutsatua.*

Txisa egiten dute
ta oso gustura.
Gizakiek egiten
dute kutsadura.

Naturak beharko du
euki mila lagun,
natura errespetatu
ta zaindu dezagun.

Beti kotxean doaz
pozez eta barrez
gizakiak kutsatzen,
zergatik ez oinez?

Tranparen arriskua
beti ta basotik.
Animali gaixoak
tranpen kulpagatik.

Zaindu behar duzue
Irati ta Anboto.
Birziklatu ta bizi
denontzat hobeto.

Etxean birziklatu
kartoia urdinean.
Zaborrik ez dugu nahi
gure lur maitean.

Basora sartuko naiz
basoa ikustean,
ez hil animaliak
eta utzi bakean.

Karramarroak bota
gauza bat beltz samar,
itsasoan fuelik
ez da bota behar.

Lorea kentzen dute,
egia benetan,
loreak mendietan
ta ez lorontzietan.

Gu beti gaude pentsaz
zaintzeko mundua,
erabili batera
ura ta burua.

Zuhaitzak zaindu eta
guztiontzat hobe.
Zuhaitzak moztu gabe
dena ikusi berde.

Domingeroak beti
barbakoa ondoan,
guk esaten diogu
surik ez basoan!



Toki Eder – Gasteiz
6. A

Urruntzen ikusten duenean
oso desesperaturik
saltatzea erabakitzen du
uretara eroririk.
Urruntzen ikusten duenean
uretara eroririk.

Guztiak barrez daude zelaian,
Jone han dago dilistekin.
-Begira Jonek kaka egin du
bere mantxa marroiekin.
Guztiak barrez daude zelaian
bere mantxa marroiekin.

Klasean denok barrezka hasi
ta Iñaki izututa.
Azkenean barrezka hasita
ta Iñaki lotsatuta.
Klasean denok barrezka hasi
ta Iñaki lotsatuta.

Horrelakoak dira Iker ta aita
eta beti borrokatu
ta horrelakoa bere familia
eta ezingo dira aldatu.
Horrelakoak dira Iker ta aita
eta ezingo dira aldatu.

Mikelek amona ikusi du
a ze nolako saltoa!
Ze zoriontsu den ikustean...
dendatik pozik badoa.
Mikelek amona ikusi du
dendatik pozik badoa.



Toki Eder – Gasteiz
6. B

Dorre Eiffeleko goikaldean
biak batera begira,
krispetak eta txutxeak jaten
muxuka ibili dira.
Dorre Eiffeleko goikaldean
muxuka ibili dira.

Ibairen pazientzia bukatu zen,
denak haserretu ziren.
Ibaik lagunak bota zituen,
lurrean bukatu zuten.
Ibairen pazientzia bukatu zen,
lurrean bukatu zuten.

Barbakoa egin genuen ta
Anek ekarri pastela,
Ikerrek etxetik mortadela,
saiheski eta okela.
Barbakoa egin genuen ta
saiheski ta okela.

Amak zorria aurkitu eta
farmaziara hurbildu.
Azkar batean bueltatu eta
FullMarks-ekin akatu du.
Amak zorria aurkitu eta
FullMarks-ekin akatu du.

Neskalaguna zela uste zuen
eta esan zion gabon.
Begiek bihotz forma daukate
ta muxu bat eman zion.
Neskalaguna zela uste zuen
ta muxu bat eman zion.



Toki Eder – Gasteiz 6. C

Arrain guztiak poz-pezik daude
ia denak golak sartzen.
Atezainak ez du golik sartzen
begiarekin jolasten.
Arrain guztiak poz-pezik daude
begiarekin jolasten.

Ospitalera eramateko
izarretara begira.
Bere familia itxoiten dago,
anbulantzia etorri da.
Ospitalera eramateko
anbulantzia etorri da.

Lapurrak daude nire egongelan,
sartu dira lapurtzera.
Mesedez polizia jatorrak
etorri nire etxera.
Lapurrak daude nire egongelan
etorri nire etxera!

Orduan biak pasilotxora
ta hasiko da burruka.
Patxik esan dio Ireneri
neskatoa zigortuta.
Orduan biak pasilotxora,
neskatoa zigortuta.

Anttonek kotxea probatu du
ez du funtzionatzen ongi,
hau kotxe zahar eta kakati
eta lurrera erori.
Anttonek kotxea probatu du
eta lurrera erori.



Ramon Bajo – Gasteiz
5. maila

Santa Ageda bezpera,
klasetik gara atera,
Ramon Bajoko umeak gara
eta gatoz kantatzera.

Gogo pila jolasteko,
ez ditugu jolas asko...
Jolas berriak behar ditugu
5. mailarentzako.

Santa Ageda kantatzeko
gozatuko dugu asko.
Pistina handi bat nahi dugu guk
patioan bainatzeko.

Ezin dugu espinakekin,
barazkia ez dugu atsegin...
Jantokirako pizza nahi dugu
bakon ta atunarekin.



Ramon Bajo – Gasteiz
6. maila

Zikin kaleak garbitu,
bizkotxoa oparitu,
parkea handiagoa egin
eta frontoia berritu.

Kaleko pobreak sendatu
ta etxera gonbidatu.
Lagunekin tabernetara joan
eta bizitza on bat hartu.

Krisia behingoz bukatu
eta hau guztia adostu,
egun osoan lanean gaude
eta ezin dugu aguantatu.

Nahi dugu auzo dotorea:
polita eta berdea.
Horregatik eskatzen dugu guk
zuhaitz gehio landatzeko.

Koloreak eskatzeko,
Alde Zaharra edertzeko...
Auzoan kolore gehiago nahi
dugu polita izateko.



Adurtza ikastola - Gasteiz 5. A

Ai zapotxun!
Naturari entzun...
Ama lurra defendatu deza-
gun.

Lur kutsatu batean
ezin gara egon,
ez, ez, ez, frackinga ez
Araban ez inon.

Animaliekin zu
ez gaizki portatu,
animaliak zaindu
ta errespetatu.

Guztiok bizitzeko
pixka bat hobeto
ehiztariek natura
gehio ez hiltzeko.

Ura galtzen duzue,
gainera litroka,
ura alferrik ez galdu
ta itxi txorrota.

Beti harrapatuta
ta barroteekin,
zer egin ahal dugu
zoologikoekin?


Beti galtzen ditugu
gure atzamarrak,
ez zaizkigu gustatzen
zentral nuklearrak.

Utzi gure buztanak
ta gure buruak,
animaliak gara
ta ez jostailuak.

Arrainak, marrazoak
bizi dira hondoan,
arrantza sarerik ez
gure itsasoan.

Zakarra kendu eta
guztia garbitu,
kutsadurak hiltzen du,
mesedez murriztu.

Beti gu etxe gabe,
dena basamortu,
basoak hutsik daude,
zuhaitzak ez moztu.



Adurtza ikastola - Gasteiz
5. B

Ai txikitin!
zoaz lagunekin,
jolastu nahi dut
zure Wiiarekin.

Ume moko txikiak
beti paga eskatzen
eta beti aitonak
tontoak ematen.

Hemen kalean beti
txakurtzarren kaka
eta beti kaletan
zakarra botata.

Txakurren kakak asko
parkean ta hemen,
txakurren kaka asko
ez dira jasotzen.

Kutsadura handia
hiriburuetan,
kotxe gehiegi dago
kale guztietan.

Lehen beti kalean
ta orain gaixotzen,
mediku hauek beti
pilulak bidaltzen.

Gehiegi daude beti
teknologiekin,
ez dakigu zer egin
bideojokoekin.

Ohean nagoenean
zure aitonaekin,
festetan zarata asko
ezin lorik egin.

Ilobak etortzean
ardura ugari,
jakin gu ez garela
iloben zaindari.

Paseatzen ari naiz
kaletik askotan,
bizikleta gehiegi
daude hirietan.

Etxetik ateratzen
naiz bibotearekin.
Nik beti esaten diet
kontuz baloiekin.



Adurtza ikastola - Gasteiz

6. A

Kakazaharra, mila arraio!
 jabea ikusten badut...
 poliziari deituko diot
 multa ederra jasoko du.
 Kakazaharra, mila arraio!
 multa ederra jasoko du.

Uretan jendearekin nago
 hanburgesa asko hartzen,
 neskak daude bikiniarekin
 kristonen festa ospatzen.
 Uretan jendearekin nago
 kristonen festa ospatzen.

Ai ze mina egin didazun zuk
 nire polit aurpegian,
 Unax botata dago lurrean,
 Izaskun barre batean.

Umeak pozik dantza ta dantza
 eta lurrera joan da,
 orain kotxera joan behar du,
 benga mutila azkar ba!
 Umeak pozik dantza ta dantza
 benga mutiko azkar ba!

Beltza Anthoni paseatzen dio
 Eroskiko sokarekin,
 zergatik gertatzen zait hau niri?
 zelako lotsa Beltzakin!
 Beltza Anthoni paseatzen dio,
 zelako lotsa Beltzakin.

Maisuak ea zer gertatu zaien
 galdetu du oso haserre,
 istorioa kontatu ondoren
 irakasleak irrifarre.
 Maisuak ea zer gertatu zaien
 irakasleak irrifarre.



Adurtza ikastola - Gasteiz
6. B

Pertsona ez zen horren itsusia,
jatorra eta trebea,
jada dakite nor den umea:
da Unairen beste semea,
Pertsona ez zen horren itsusia,
da Unairen beste semea.

Pepitok soka ikusi zuen
ta egoera nahasi,
dena amarru txiki-txikia
ta biak barrezka hasi.
Pepitok soka ikusi zuen
ta biak barrezka hasi.

Menditik behera jausi egin naiz
eta min asko hartu dut.
Buru, kopetan, mina hartu dut
eta txintxoi asko ditut.
Menditik behera jausi egin naiz
eta txintxoi asko ditut.

Txerri ama da politena ta
gonbidatu Largabista
ta ere gonbidatu du Txita,
pizza eta telebista.
Txerri ama da politena
Gonbidatu largabista



Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz 5.A

Ahateak jaio ziren
denak atseginak,
txikia ez zen polita,
ama zen sorgina,
amak ez zuen maite
zelako ezberdina...
Denak berdinak ziren
ta bat ezberdina.

Ezberdina zelako
horrenbeste txiste,
ezberdina zelako
ez zen besteen parte,
bere familiarekin
ez zuen ez zorte,
ahate ama bat zuen,
baina ez zuen maite.

Ahate itsusiak
alde egin zuen
beste leku batera
lagunak aurkitzen,
errekara helduta
lotan geratu zen,
hiru lagun ahate
aurkitu zituen.

Lagunekin zegoen
ehiztariak heltzen,
orduak ehiztariak
saiatu ehizatzen.
Azkenik lortu zuten
laguntxoak hiltzen,
amona zahar baten
etxera heldu zen.

Amonak arrautzak nahi
ta ez zituen jartzen,
amona gure ahatea
saiatu zen hiltzen,
ahatea konturatu
jaten ohartu zen,
berriz gure ahateak
alde egin zuen.

Laku batera heldu
lagunak aurkitzen,
Poz-pezik zegoen ta
hasi zen dantzatzen,
laku horretan geratu
hasi zen jolasten,
beraiekin geratu
lakuan bizitzen.

Negua pasa ondoren
zegoen beroa,
ura edatera joan
zelako gogoia!
Ura begiratzean
bere aurpegitxo,
zorionsu izan zen
gure zisnetxo.



Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz 5.B

Hiru txerrikumeak
amaren etxean,
bakoitzak bere etxea
egin nahi mendian,
bakoitzak egin zuen
modu ezberdinean,
zuhaitz baten atzean
otsoa zelatan.

Hiru txerriei gustatzen
zitzaien artea,
txikiak bere etxea
lastoz ta merkea,
ertainak egin zuen
egurrez betea,
handiak egin zuen
adreiluzko etxea.

Otso gaiztoa joan zen
txikia ikustera,
otsoak putz eginda
etxea lurrera,
eta txerri txikia
korrika egitera,
txerri txikia joan zen
egurrezko etxera.

Egurrezko etxera
otsoaren plana,
putz egin zuen eta
bota zuen lana,
hainbeste lanarekin
ihesean jana,
bi txerriak joan ziren
handiarengana.

Otsoa harrizko etxera
lasterka joan zen,
etxea botatzeko
hasi putz egiten,
putz egin zuen eta
etxea ez zen jausten.
Tximiniatik sartzea
erabaki zuen.

Txerritxo txikitxoek
zarata berria,
otsoa nola sartzen
tximini txikia,
hiru txerriek piztu
zuten su handia,
otsoa tximiniatik
erre ipurdia.

Otsoa ez zen itzuli
ez zelako ausartzen.
hiru txerriak pozik
bizi izan ziren,
denak ondo pasatzen,
jolas ta abesten
eta ez zuten inoiz
arazorik sortzen.



Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz 5.C

Beruneko hogeita bost
soldadutxo ziren,
logelan oparia
ta aurkitu zuen.
Batek hanka bat faltan
logelan zegoen...
dantzaria ikusi
ta maitemindu zen.

Gaua heldu zen eta
guztia ilunik,
denak kutxan zeudela
herrena izan ezik,
ez zitzaion ez falta
inondik lagunik,
soldadutxoa besteekin
jolasean pozik.

Soldadutxo leihotik
erori egin zen,
ume batzuk aurkitu
ta hasi jolasten,
bat-batean papera
hasita tolestean,
paperezko txalupa
baten sartu zuten.

Soldadutxoa jaurti
arratoi galdetzen,
soldadutxoa triste
lekua aurkitzen,
galdetu zion "zertan
ari zara hemen?",
bakarrik zebilela
maitea bilatzen.

Estolderietatik
itsasora heldu zen,
itsasoan arrain bat
zegoen hau jaten
ta arrantzale batek
arrantzatu zuen,
merkatura eraman
ta hor saldu zuten.

Amak erosi zuen
zerbait merkaturan,
gero bera joan zen
ta sartu etxean.
Barazkiak ta arraina
zeramatzan poltsan.
Arraina ireki zuen
ta soldadutxoa eman.

Elkarren gustukoak
egin ziren zuzen,
gustura egoten ziren
batera bazeuden,
beti eskua emanda,
beti hitz egiten...
Musika kutxakoak
inbidia zuen.

Bere jostailuekin
aspertu ondoren,
umeak soldadutxoa
sutan utzi zuen.
Haizeak dantzaria
sutondora zuzen,
sutara jausi eta
dantzatzen hil ziren.



Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz 5.D

Peio mendira joan zen
gaua botatzera,
Anbotora joan zen
ardiekin batera,
lanbroa topatu ta,
ohi zuen antzera,
koba batean sartu
gaua pasatzera.

Tartalo kobara joan
zen bakarrik pausoz
eta bidetik Peiok
aurkitu du apropos.
Sarrera harri batekin
itxi zuen ados,
hurrengo egunean
Peio jateko asmoz.

Artaldearekin Peiok
bazuen problema,
irteteko modurik
ez burun barrena,
Tartalok jarri zion
eraztun txarrena:
"Hemen nago, hemen nago..."
esaten zuena.

Peiok makila hartu
ta begian sartu
ta Tartalok begia
erreta oihukatu.
Tartalo haserretu,
harria mugitu,
gure Tartalo Peio
aurkitzen saiatu.

Ardi larru batean
Peio ezkutaturik
ta Tartalok ez zuen
Peio sentiturik,
Peio atera zuen
larrua harturik
eta atera zuen
Tartalok kobatik.

Eraztunak "hemen naiz"
bota deiadarra,
Tartalo etorri zen,
Peiok zuen beldurra.
Peiok atzamarra moztu
zen harrigarria,
amildegitik bota
zuen atzamarra.

Tartalori ihes ta
eginda parranda,
Peio joan zen poz-pezik
Tartalok kobara,
Herriko jendeari
janaria laga
ta zoriontsu joan zen
herriko plazara.



Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz

6. A

Patxi jatorregia izan da,
denek zuten ikasita,
ikasleak oso pozik daude
guztiei bikain jarrita.
Patxi jatorregia izan da
guztiei bikain jarrita.

Koska egin dit ta mina daukat
moratoi bat dut erdian,
prakak jausi egin zaizkit eta
hotza daukat ipurdian.
Koska egin dit ta mina daukat,
hotza daukat ipurdian.

Amona etxera bueltatu egin da
beti bezala barre egin,
katua berriz miauka egon da
Jullianen katuarekin.
Amona etxera bueltatu egin da
Jullianen katuarekin.

Noelek kaka egin zuenean,
Iñaki pozez beteta.
Noel kartzelara joan zen bai
ez nuen espero eta.
Noelek kaka egin zuenean,
ez nuen espero eta.

Ume txikia amorfoa da
ta horrela biziko da,
medikua ikusi dugunean,
gu negarrez hasi gara
Ume txikia amorfoa da
gu negarrez hasi gara



Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz

6. B

Gure lehoia negarrez dago
kaiolaren izkinean:
-Jaimito hortik atera zaitetz!
Utzi ezazu bakean.
Gure lehoia negarrez dago
utzi ezazu bakean!

Hirugarrenak lurrera erori
barreekin nahasita,
estropezu egin duelako
eta negarrez hasita.
Hirugarrenak lurrera erori
eta negarrez hasita.

Nire ama Pitxitak esan dit
guztioi jatea,
eta ere bai berak agindu dit
denoi akabatzea.
Nire ama Pitxitak esan dit
guztioi akabatzea.

Ordu horretan gertatu zena
beste egunetakoa,
anbulantzia etorri etxera,
biek dute min nahikoa.
Ordu horretan gertatu zena
biek dute min nahikoa.

Rio de Janeiroko ospitalean
denak oso gaizki daude.
-Hogeita lau egun pasa dira
eta denak ondo gaude.
Rio de Janeiroko ospitalean
eta denak ondo gaude.

Bera lurrean etzanda dago
beraren tarta airean.
Burua ondo altxatuko du
ta tarta bere buruan.
Bera lurrean etzanda dago
ta tarta bere buruan.

Hau da gure mendeku handia
egingo duzue kaka,
ez bota petardo gehiagorik
ez zara ume ausarta.
Hau da gur mendeku handia,
ez zara ume ausarta.



Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz
6. C

Kamareroak barrezka daude
eta ni negarrez jo ta ke,
Komunek gaizki usaintzen dute
ta hemendik atera naute.
Kamareroak barrezka daude
ta hemendik atera naute.

Triste aitona ez dagoelako
amonari musu eman,
Rodolfo harriturik geratu
ezpainak bere aurpegian.
Triste aitona ez dagoelako
Ezpainak bere aurpegian

Hondartzan olatu handiak dauz
kostatik urruti hobe,
olatu batek gaztelua bota
ta biak barrezka daude.
Hondartzan olatu handiak dauz
ta biak barrezka daude.

Irakaslea haserretuta,
biak lotsa askorekin:
-Orain medikura joan behar gara
haserre aurpegiarekin.
Irakaslea haserretuta,
haserre aurpegiarekin.

Hiriko anbulantzia etorri
eta Peter hor bakarrik.
Medikuak Peter lasaitu du
eta Peter oso pozik.
Hiriko anbulantzia etorri
eta Peter oso pozik.



Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz

6. D

Olentzero aldatzera joan
ta umeak triste daude,
uste dute geratu direla
denak oparirik gabe.
Olentzero aldatzera joan,
denak oparirik gabe.

Eta nahi gabe itsua denez
bidean zaigu nahastu,
lehoiak oso harrituta daude,
Aitor kaiolara sartu.
Eta nahi gabe itsua denez
Aitor kaiolara sartu.

Azkenean neskak aurkitu du
eta Manuk ze zorion!
Neskak Manuri kamioia eman
ta guztiak pozik egon.
Azkenean neskak aurkitu du
ta guztiak pozik egon.

-Zergatik sartu ote duzu ba?
-Berriak hobeto eta
freskoagoak egoteko ba!
-Agur jatera kroketa!
- Zergatik sartu ote duzu ba?
Agur jatera kroketa!

Zelaia eskalatu duenean
eta asko kostatuta,
tonto aurpegia geratu zaio
partidua bukatuta.
Zelaia eskalatu duenean
partidua bukatuta.

GASTEIZKO BERTSO ESKOLA

AMAIA ZENTROA

Pérez Galdós z/g 01002 GASTEIZ

Tel: 945010505 fax: 945288275

Mug: 688695875 (Arduraduna: Iñaki Viñaspre)

e-posta:

gasteizkobertsoeskola@yahoo.es

araba@bertsozale.eus

www.bertsozale.eus/araba

